



Basaburuko Udala
CIF P 3104900 J
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

2024KO IRAILAREN 25EAN BASABURUKO UDALAK **EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA**

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2024ko irailaren 25ean, arratsaldeko 19:00etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Santos Etxegia Oronoz alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Julen Beunza, Micaela Elizalde, Iker Isiegas, Javier Auza, Alaia Etayo eta M^a Mar Ansorena.

Bertaratu da baita ere Ihabengo kontzejuko alkatea Goreti Beunza.

19:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDAA

1.- Aurreko aktaren onespena.

Abuztuaren 28ko ohiko batzarreko akta eta irailaren 16ko ez ohikoa emailaz bidali ziren eta aho batez bildutakoek onartzen dituzte.

2.- Alkate ebazpenak

- 2024/ 98 alkate ebazpena baimena emanaz Ultzamako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateari Aizarozko Kultur etxeko areto nagusia erabiltzeko irailaren 25ean eta urriaren 2-9-16-23 eta 30ean maskulinitatea lantzeko 17etatik 19:30etara.

- 2024/99 alkate ebazpena baimena ematea Paul Usetxi Sarasak egindako eskaera, eta hortaz baimena ematea Aizarotzko Luzia Goñi Kultur Etxeko gela haundia erabiltzeko irailaren 15ean arneko animal totenikoa aurkitzeko tailerra burutzeko goizeko 10etatik 13etara.

-2024/100 alkate ebazpena obra baimena ematea Jesus Osoz Oricaini Erbitiko 7. Poligonoko 5. Lursaileko etxebizitzaren teilatua eraberritzeko 28.890,31 euroko aurrekontuarekin.

-2024/101 alkate ebazpena Lakita S.A. enpresari esleituz Basaburuko iharduera ekonomikoen gunean argi hartunea egiteko obra zibila, 31.104,44 euroko aurrekontuarekin BEZ kanpo, obra egiteko epea 12 lan egunekoa izanik eta obraren berme epea guztira 9 urtekoa finkatuz, obra jasotzeko akta sinatzen denetik.

- 2024/102 alkate ebazpena Aldakin enpresari esleitzea Basaburuko iharduera ekonomikoen gunean transformazio zentroa egiteko obra, 108.760,63 euroko aurrekontuarekin BEZ kanpo, obra egiteko epea 3 hilabetekoa izanik eta obraren berme epea guztira 20 urtekoa finkatuz, obra jasotzeko akta sinatzen denetik.

-2024/103 alkate ebazpena onartuz, Francisca Garro iribarreni aparkatzeko elbarriendako txartela ematea.

-2024/104 alkate ebazpena obra baimena ematea Ostabe Inbertsioak S.L-ri, Orokietako 8. Poligonoko 22. Lursailean dagoen etxebizitzaren fatxadak eraberritzeko 8.400,53 euroko aurrekontuarekin.

-2024/105 alkate ebazpena onartuz Irene Sales Pardori Apeztegiberriko eraikinaren erabilera anitzetako bigarren pisuko gela erabiltzea, irailaren 29an, 18:00etatik 20:30etara kontzertu meditatibo bat egiteko.

-2024/106 alkate ebazpena onartuz IKA Euskaltegiari. Luzia Goñi Kultur Etxeko erabilera anitzetako gela erabiltzea, 2024-2025 ikasturtean euskara klaseak antolatze bilerak egiteko, irailaren 26an 17:30etatik aurrera.

-2024/107 alkate ebazpena baimena emanaz Onartzea Argimalutari Goñi Kultur Etxeko erabilera anitzetako gela erabiltzea urritik ekainera yoga ikastaroa burutzeko, asteazkenetan 16:30etatik 18:00etara.

Bildutakoek ontzat ematen dituzte orain arte egindako alkate ebazpenak,

3.- Ihabengo aisialdi gunea egokitzeko obra PSTD programa bidez finantziatua. Obraren esleipena.

Alkateak aipatzen du irailaren 16ko ez ohiko batzarrean adierazi bezala, obra hau PSTD programaren finantzaketa jasotzen duenez, enpresa eta udaleko ordezkarien arteko gatazka interesen baieztoko analisia egin behar du estatuko ogasun agentziak Minerva programaren bidez.

Komentatu bezala programa horretara bidali dira udaleko zinegotzi eta idazkariaren datuak eta obra honen esleipenduna izan daitekeen Repoblaciones Etxarte S.L. enpresarekin kontrastatu dituzte ikusteko interes gatazkaren bat dagoen. Baieztoko txostena jaso da hortaz ez legoke arazorik aisialdi gunearen egokitzapen obra aipatutako enpresari esleitzeko.

Irailaren 9an balorazio mahaiak egindako bileran Ihabengo aisialdi gunearen egokitzapen obra Repoblaciones Etxarte S.L. enpresari esleitzeko proposamena egin zion batzarrari, obra 34.429,94 euroko aurrekontuarekin esleitu zen eta Repoblaciones

Etxarte S.L enpresak 30.298,35 eurotan egingo duela BEZ kanpo proposatu du. Gainera ere obraren berme epea luzatzen du bi urtez, hortaz osotara obraren bermea 5 urtekoa izanen da, obra 8 astetan egingo duenaren proposamena aurkeztu du enpresa eta Enplegu Bulegoekin %5eko kontratazioa burutuko duela.

Hortaz bildutakoek aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

- Ihabengo aisialdi guneko egokitzapen obra Repoblaciones Etxarte S.L enpresari 30.298,35 eurotan, obra 8 asteko epean egingo da, 5 urteko berme epea izanen du eta obraren %5a Enplegu Bulegoekin kontratatuko da.

- Erabaki hau esleipendunari jakinaraztea.

4.- Ihabengo aisialdi gunean komun idorra jartzeko obra PSTD programa bidez finantziatua. Obraren esleipen.

Obra hau ere aurreko puntuan bezala PSTD programako finantzaketa dauka eta hortaz ere Minerva aplikazioaren bidez Estatuko Ogasun Agentziak baiezkotxostena egin behar du ikusiz obra esleitu eta kudeatu dutenen artean eta enpresaren artean interes gatazkak ez daudela.

Baiezkotxostena jaso da ere obra honetarako eta hortaz esleitzea dagokio orain udal batzarrari.

Alkateak azaltzen du irailaren 9an balorazio mahaiak egindako bileran, Saneseco SCCL enpresari esleitzeko proposamen egin zuen, berau izan zen aurkeztutako enpresa bakarra. Obra egiteko aurrekontua 35.404 euro BEZ kanpoko zen eta enpresak 33.990 eurotan egingo duela proposatu du. Obra egiteko epea 10 asteko izango da eta berme epea 3 urtekoa

Hortaz bildutakoek aho batez ondoen zehazten den erabakia hartzen dute.

Ihabengo aisialdi guneko komun idorra egiteko obra Saneseco SCCL enpresari esleitzea 33.990 euro BEZ kanpoko aurrekontuarekin, obra egiteko epea 10 astekoa izango da, obraren berme epea 3 urtekoa izango da.

Erabaki hau Saneseco SCCL enpresari jakinaraztea.

5.- Jaunsaratsen baso sorgindua egikaritzeko PSTD programa bidez finantziatua. Obraren esleipena.

Alkateak aipatzen du Minerva aplikaziotik baiezkotxostena jaso dela obra honen interes gatazken inguruan ere PSTD programan sartua dagoelako.

Hortaz obra esleitu ahal da. Obra egiteko aurrekontua 33.320,08 eurokoa da BEZ kanpo, eta obra esleitu zaion enpresak 29.321,69 euro BEZ kanpoko proposamen ekonomikoa aurkeztu du. Obraren berme epea 3 urtekoa da obraren baldintza pleguaren arabera eta Repoblaciones Etxarte S.L enpresak 2 urtez luzatzen du berme epea,

Enplegu Bulegoekin obraren %5a kontratuko dela adierazten dute haien proposamenean ere.

Hortaz aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute bildutakoek:

Repoblaciones Etxarte S.L enpresari Jaunsaratsko baso sorginduaren obra esleitzea 29.321,69 euro BEZ kanpoko aurrekontuarekin, obraren berme epea 5 urtekoa izanik eta obraren %5a Enplegu Bulegoekin kontratatzeke konprometzearekin.

Erabaki hau esleipendunari jakinarazi.

Gai zerrendatik kanpo aho batez onartzen dituzte ondoren zehazten diren bi gaiak zerrendan sartzea eta aztertzea bildutakoek

Balorazio ponentzia berritzeko Batzorde mistoko ordezkarien izendapena

Balorazio ponentzia berriaren tramiteen baitan batzorde mistoa eratu behar da, udaleko 3 ordezkariarekin eta Nafar Gobernuako beste hirurekin.

Ordezkariek erabaki eta jakinarazi behar zaie bilera egin dezaten ponentziaren onespena egiteko. Bildutakoek aho batez onartzen dute Basaburuko udaletik batzorde mistorako ordezkariak hauek izango direla:

Santos Etxegia Oronoz , Micaela Elizalde Elizalde eta Iker Isiegas.

Erabaki hau Nafar Gobernura jakinaraztea agintzen dute bildutakoek.

Itsasoko fosa septikoa haunditzeko proiektuaren onespena

Alkateak gogoratzen du nola Nilsak Itsasoko fosa septikoa haunditzeko proiektua aurkeztu zuen, obra egiteko ere CHE eta beste entitateen baimenak tramitatu izan ditu Nilsak.

Orain udalari eskatzen diote prozedurarekin jarraitzeko udalak proiektua onartzea eta hortaz erabaki hori hartzen dute bildutakoek kontutan hartuz proiektuarekin bi Imof tanketa jarriko direla eta osotara 26 m³-ko bolumena izango duela.

Erabaki hau Nilsari jakinarazi.

6.- Mozioak.

Ez dago moziorik

7. - Batzordeen informazioa.

Euskara Batzordea. Iker Isiegasek ematen du informazioa.

C1 ikastaroa egiteko 9 pertsonak eman dute izena. Bestetik euskara ikasteko lehen urratseko ikastaroa burutzeko bilera egingo du IKA Euskaltegiak. Jada talde txiki bat osatu da ostalarien formakuntzatik atera zena. Finkatzen dituztenean ikastaroa emateko egun eta orduan publizitatuko da.

Kirol Batzordea. Javier Auzak ematen du informazioa.

Adinduen yoga ikastaroan izena emateko epea bukatu da eta urriaren 2an hasiko dira klaseak

2025eko maiatzaren 24an ospatuko da Rogaine orientazio proba.

Hezkuntza Batzordea. Alaia Etayok ematen du informazioa.

Ttikiena eskolako zuzendariarekin i ikasturte hasierako jarraipen bilera izan da. Bertan adierazi du zuzendariak 13 umek hasi dutela ikasturtea eta 17 izatera iritsiko direla ikasturtean zehar. Zerbitzua ongi eman ahal izateko eta kontutan hartuta Nafar Gobernuak 21 ume dituzte eskolei errefortzuko langilea onartzen dieten, behar hori Ttikienak izan ahalko duela adierazi da bileran eta udalari eskatu diote 2.5 orduko errefortzuko langile bat kontratazea. Langile horrekin gainera aukera izango lukete beharren arabera lanaldia igotzeko egun dauden langileak gaixotzen direnean eta beste... eskaera hau Hezkuntza Batzordean aztertuko da.

Gainera ere ikastaro bereziak egiteko diru laguntza eskatu diote udalari eta aspiragailu berria. Bi eskaera hauez ez zitzaizkien aipatutako bileran onartu.

Bai eskatu eta Udal eta Kontzejuen Federaziotik bideratuko dena da, haur eskolak beste eskolek bezala, odeiak fitxeroak gordetzeko espazioa mugagabea izatea. Orain jada agortua dute eta haunditzeko espazio ordaindu beharko litzateke.

Bestetik Oihanzabal eskolako jantoki eta garraio zerbitzuen berri ematen da. Biak lotuta egonik, eskolatik 13:50etan ateratzen dira bazkalduta jada, eta umeak goiz etxera etortzeak familiei kontziliazio arazoak sortzen dizkie, hortaz eskolatik aztertzen ari dira begiralearen lanaldia luzatzea eta horrela umeak patioan egon ahal dira 15:00ak arte bertan gurasoek jaso ahal izateko.

Jantokiko isolamendua hobetzeko eskaera egin dute eskolan ere.

Garraio zerbitzuarekin lotuta azaltzen du Alaia Etayok aurreko astean bilera izan zuela Hezkuntza Departamentuan DBH-ra doazen garraioaren egoera salatzeke. Erabiltzaile bakoitzak zenbat denbora pasatzen duen autobusean erakutsi zen eta hori hobetzeko proposamen bat aurkeztu ere, Basaburutik Iruñera joateko bi ibilbide jarritz.

Proposamen hau aztertuko zela adierazi zen hezkuntzatik.

8.- Informazio orokorra.

- PDR 2025 programan proiektuak sartzeko epea irekia dago, alkateak zinegotziei inbertsio ideak proposatzen eskatu die.

-2 pisuko esleipena hutsik gelditu da alokairu sozialerako errentaren baldintza ekonomikoak ez zituelako aurkeztutako inork betetzen, hortaz prezio librean aterako da errenta.

- Mendialdeko azoka ibiltaria azaroaren 2 eta 3ko asteburuan ospatuko da. Gaztainarekin lotuta egongo da eta horregatik hainbat ekimen burutuko dira asteburu horretan zehar, ikastaroak gaztain ondoen inguruan... eta azokaren egunean Reyno Gourmet entitatearen bidez gaztainekin sukaldatzeko tailerra.

- Industriaguneko urbanizazioko obra bukatua dago eta ordaindua azken faktura, irailaren 26an Nafar Gobernuako teknikaria etorriko da obraren ikuskapena egitera diru laguntzaren ordainketa egin ahal izateko.

- Kontzejuen bilera burutu da hilabete honetan, eta bertan ikuiluetan jarri behar diren helpbidea seinaleen ekimenaren berri eman zen eta guztien artean karpa bat erosteko egitasmoa aurkeztu zen ere...

- Aizarotzko kontzeju izendatzeko agindua Nafar Gobernuak onartua duela ere jakinarazi zen baina oraindik sinatu eta argitaratu gabe dago.

- Itsaso eta Beramendin parke eolikoa jartzeko enpresak berriro eskatu du, proiektua hirigintza araudira egokitzen denaren txostena. Txosten horiek egiteko tasak ordaindu behar dituztela adierazi zaie.

- Komunitate energetikoen inguruko hitzaldiak burutuko dira kontzejuetan.

9. Erregu-galderak

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez 20:20 direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.